



# **KLIMA ALDAKETAREN AURKAKO 2050ERA KO EUSKAL ESTRATEGIA**

*Parte-hartze prozesua*

**2015eko apirilaren 15a**





Ingurumen eta Lurralde Politika Saila  
Eusko Jaurlaritzak  
Donostia-San Sebastián, 1 - LAKUA  
01010 Gasteiz  
Araba



**AURKIBIDEA**

1. AURKEZPENA ETA HELBURUAK.....	3
2. PARTAIDETZA-PROZESUAREN LABURPENA.....	4
3. ONDORIO NAGUSIAK.....	12



## 1. AURKEZPENA ETA HELBURUAK

**Euskadi batu egin zaio nazioarteko komunitateari**, klimaren arloko kudeaketa eskualdeko eta tokiko politika publikoetan txertatzeak duen garrantziaz kontzientziatuta.

Hala ere, klimaren arloko ekintzan parte hartzen duten **eragileen eta sektoreen interkonexioak zeharkako** ekintza-ildo bat eskatzen du, horiek guztiek 2050erako Klima Aldaketaren Euskadiko Estrategian (2050 KAEE) parte hartzea ahalbidetuko duena. Hori dela-eta, Eusko Jaurlaritzak lanean jarraitzen du arlo horretan ikuspuntu orokor eta inklusibo batetik; hain zuzen, ikuspuntu horrek kontuan hartzen ditu herritarrak ikuspuntu hori zehazteko eta gizartea partaide egiten du erabakian hartzean.

Helburu horrekin, 2050 KAEE egitearekin lotutako lan teknikoen paraleloan, **herritarrek parte hartzeko prozesu bat** diseinatu eta gauzatu da, klima-aldaketaren arloko eragile garrantzitsuekin komunikatze eta egiaztatze aldera Estrategian jaso beharreko jarduera-ildo nagusiak, eta horiek beren pertzepzio partikularrekin lerrokatzeko, hainbat arlo eta sektore hartuz.



Horrela, lankidetzeta-prozesuan **parte hartu** dute Eusko Jaurlaritzako ia-ia sail guztiek eta, gainera, foru-aldundien, udalerrien eta, oro har, gizartearen ekarpenak jaso dira, lan teknikoekin batera egin diren partaidetzeta-prozesuko hainbat fororen bidez.

Testuinguru horretan, txosten honen xedea da gauzatutako partaidetzeta-prozesua laburbiltzea eta antolatutako partaidetzeta-saioen emaitzak laburtzea. Azkenik, txosten honek eranskin bat du, eta egindako foro guztien eta izandako harremanen aktak jasotzen ditu.




## 2. PARTAIDETZA-PROZESUAREN LABURPENA

2015eko urtarriletik apirilera hainbat **partaidetza-saio** egin dira Euskadin klimaren kudeaketan parte hartzen duten eragile nagusiekin. Saio horien xedea izan da 2050erako Klima Aldaketaren Euskadiko Estrategia egiteko prozesua aurkeztea eta kasu bakoitzean jarduera-ildo nagusiak egiaztatzea.

Honako hauek izan dira **partaidetza-prozesuaren datu nagusiak**:

- ❖ **Parte-hartzaileen kopurua: 80 baino gehiago**, honako partaidetza-kanal hauetan banatuta:

**PARTAIDEEN BANAKETA ERAGILE/PARTAIDETZA-BIDE MOTAREN ARABERA**



- ❖ **Topaketen kopurua: 16 bilera eta 2 lan-foro**
- ❖ **Lortutako emaitza nagusiak:**
  - **23 fitxa tematiko**
  - **75 iruzkin**

Zehazki, honako eragile hauek parte hartu dute:



1. **Eusko Jaurlaritzaren Sailburuordetzak**, horiekin zehaztu eta egokitu dira alde zehatzetik egindako sektoreko diagnostikoa eta jardueraren esparru bakoitzean Estrategiak izango dituen ekintza zehatzak eta jardueraren ildoak. Izan ere, zeharkakoa denez, Eusko Jaurlaritzaren arlo eta sail gehienak tartean sartzeko ahalegina egin da, eta zehatz-mehatz, honako hauek hartu dute parte:
  - a. Industria Sailburuordetza
  - b. Garraio Sailburuordetza
  - c. Etxebizitza Sailburuordetza
  - d. Segurtasun Sailburuordetza
  - e. Administrazio eta Lurralde Plangintzaren Sailburuordetza
  - f. Osasun Sailburuordetza
  - g. Ingurumen Sailburuordetza

Erakunde horiek azpimarratu dute Estrategiaren funtsezko oinarri gisa garapen teknologikoa eta berrikuntza txertatzearen garrantzia, baita Euskadin gobernuaren maila desberdinen arteko erakunde arteko koordinazioa ere. Zehazki, saioetan ondorioztatu da hobekuntza-arlo nagusia dela klima-aldaketaren politikarekin lotutako alderdi teknikoari buruzko ezagutza hobetzea, batik bat egokitzapenari dagokionez, baina baita arintzeari dagokionez ere. Ezagutza handiago hori euskal gizartearen maila guztietan antzematen da, teknikarietan eta politikarietan nahiz herritarrengan, oro har. Gainera, premia hori tokiko edo udalerriko esparruari lotuta identifikatzen da batik bat. Esparru horietan klima-aldaketarako egokitzapena jardueraren esparru ezezagunagoa da.

Halaber, beste ondorio batzuk ere ateratzen dira, nola garraioaren/mugikortasunaren eta lurralde- eta hirigintza-plangintzaren arteko koordinazioa, hala hiriguneak dentsifikatzearen garrantzia. Bestalde, hobekuntzak egon dira egokitzapenaren arloari lotutako datuak jasotzean (adibidez, eraginen aurreikuspenen ereduak eta alerta-mailak lotutako datu meteorologikoak). Gainera, hainbat arloari buruzko alderdiak txertatzeko premia nabarmendu da, hala nola hiri-berroneratzeari buruzko alderdiak eta naturan oinarritutako irtenbideak, azpiegitura berdeak kasu. Era berean, uraren kudeaketaren antolakuntza alderdiak nabarmentzeko beharra ikusi da.



Energiaren arloan ondorioztatu da Estrategia-aldiaren amaieran energia berriztagarrien aldeko apustu sendoagoa egiteko premia dagoela, baita petrolio-eratorrien kontsumoa 0 izatea lortzeko lan egiteko premia ere, sektore kontsumitzaileen artean beste energia-aukera batzuk sustatuz.

Puntu honetan, Estrategiaren zeharkakotasunaren garrantzia azpimarratu behar da; izan ere, oso baliagarria da Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaz gain, Eusko Jaurlaritzako beste sailburuordetza batzuek ere beren jarduera-ildo partikularretan adierazi eta zehaztu izana zer neurri hartu ahal izango dituzten emisioak murrizteko (klimateketa arintzea) eta haren kalteberatasuna murrizteko (moldaera).

**Idea nagusiak:**

- ❖ Garapen teknologikoa eta berrikuntza
- ❖ Erakunde arteko koordinazioa
- ❖ Ezagutza hobetzea (batik bat, moldaeran, baina baita arintzean ere)
- ❖ Garraioaren/mugikortasunaren eta lurralde- eta hirigintza-plangintzaren artean behar den koordinazioa
- ❖ Energia alternatiboak eta berriztagarriak

2. **FORU ALDUNDIAK, Estrategia egitearen inguruan beren ikuspuntuak eman dituztenak lurralde-mailan arreta gehiago jartzen duen erakunde-ikuspuntu batetik.** Foru aldundiekin egiaztatu da sailburuordetzekin aurretik landutakoa, Estrategiaren azken jarduera-ildoak lerrokatuta geratze aldera eta horien politikekin eta hautemateekin osatu ahal izate aldera.

Erakunde horiek proposatutako jarduera-ildo nagusien artean, azpimarratzekoak dira klima-aldaketara moldatzeari buruzkoak. Zentzu horretan, nabarmendu egin dira, esaterako, klima-aldaketaren arloan ezagutzaren transferigarritasuna, nekazaritzako eta basoko sektoreetan eta ingurune naturalean dituen eraginaren ezagutza hobetzea, edo arlo horretan langileak gaitzea.

**Idea nagusiak:**

- ❖ Klima-aldaketara moldatzea
- ❖ Ezagutza hobetzea





3. **EUSKAL HIRIBURUAK (Bilbo, Donostia, Vitoria-Gasteiz), Estrategia egitearen inguruan beren ikuspuntuak eman dituztenak tokian tokiko mailan arreta gehiago jartzen duen erakunde-ikuspuntu batetik.** Aurreko kasuan bezala, hiriburuekin egiaztatu da sailburuordetzekin aurretik landutakoa, Estrategiaren azken jardueraildoak lerrokatuta geratze aldera eta horien politikekin eta hautemateekin osatu ahal izate aldera.

Hiriburuekin izandako lehenengo harremanen ondorio nagusiak gobernu maila desberdinen artean erakunde-koordinazioa hobetzera bideratu dira, arintzearen alderdietarako zein moldaeraren alderdietarako. Hirigintzaren arloan esperientziak aipatu ziren, klima-aldaketara moldatzeko eta arintzeko irizpideak nahastuta, eta oso interesgarritzat hartu zen proiektu pilotuen mailako lana, horiek ezagutaraztea eta, ondoren, beste hirigune batzuetan aplikagarriak izatea.

**Idea nagusiak:**

- ❖ Erakunde arteko koordinazioa
- ❖ Arintzearen eta moldaeraren nahasketa: proiektu pilotuak

4. **UDAL SAREA 21 FOROA**, Estrategia egiteko prozesuan hainbat udal eta gaiarekin zerikusia duten tokiko erakunde txertatzearen helburuarekin egina. **Taldeetan lan eginez jarduera-esparru ugari landu ziren, lurralde-plangintzaren, mugikortasunaren, eraikitzearen eta gizarte-zerbitzuen arloko jarduera-ildoak eta -ekintzak aipatu ziren, hondakinen eta uraren kudeaketa barne hartuta.**

Jasotako ekarpen nagusien artean dago, besteak beste, klima-aldaketari buruzko ezagutza eta hedapen handiagorako premia, batik bat moldaeraren arloan, ezezagunagoa baita tokian tokiko mailan. Horri dagokionez, funtsezkoa da udalerrietako maila teknikoak eta politikoak parte hartzea, baita arintzearen arloan ere, teknologia berriei buruzko ezjakintasuna baitago, hala nola ibilgailu elektrikoari edo energia-eraginkortasuneko teknika berriei buruz. Gainera, uste da garrantzitsua dela, besteak beste, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak (IKTak), mugikortasun-ereduak udalerrri bakoitzaren tamainara egokitzea



(ahaztu gabe landa-ezaugarriak dituztenak, euskal geografian asko baitira), hirietan eta hiriguneetan bizikleta eta oinezkoen sareak edo erosketa publiko berdearen arloan kontzientziazio handiagoa bultzatzen jarraitzea.

**Idea nagusiak:**

- ❖ Klima-aldaketari buruzko ezagutza eta hedapen handiagoa behar da (bereziki, moldaera)
- ❖ Dagoeneko badauden jarduerak bultzatzen jarraitzea (IKTen erabilera, bizikletaren sustapena...)

5. **GIZARTE FOROA.** Foro hau **publiko orokorrari irekita egon da, eta, besteak beste, erakundeek, klusterrek, unibertsitateek eta zentro teknologikoek parte hartu dute, baita ekimenean partikularki parte hartu nahi izan duten pertsonak ere.**




Udalerriekin egindako foroaren antzeko dinamikarekin 2050 KAEEren jarduera-esparru guztiak landu ziren taldeen bidez. Foru honetan, epe luzera begirako ikuspegia zehaztu zen, eta ildo eta ekintza zehatzak doitu ziren, Eusko Jaurlaritzaren sailburuordetzekin egindako saioetan aldez aurretik garatutako lanetik abiatuta.

**Idea nagusiak:**

- ❖ Klima-aldaketari buruzko ezagutza handiagoa behar da
- ❖ Plangintza integratua



6. **IREKIA.** 2015eko urtarriletik martxora Estrategiaren garapenari buruz eztabaidatzeko espazio bat irekita egon da. Hori, argitaratutako abiapuntuko informaziotik egin zen (egindako diagnostikoaren eta 2008-2012 aldiko Klima Aldaketaren Euskadiko Planaren ebaluazioaren laburpena, oinarrizko ildo estrategikoen dokumentua eta klima-aldaketari buruzko dibulgaziozko hainbat dokumentu). Guztira, 15 partaidetza eta 30 iruzkin erregistratu dira, eta, zenbait ikuspuntu eman dituzte hainbat alderdiri buruz, batik bat klima-aldaketa arintzeari buruz.



Jarraian aurkezten da **partaidetza-saioen laburpen bat**, baita parte hartu duten eragileak eta erabilitako lan-metodologia ere.

ERAGILEA	DATAK	METODOA	HELBURUA	EMAITZAK
<b>UDALAK</b>	2015/03/04	Elkarrizketak, euskarri-dokumentazioa alde zurretik bidalita	Hiru euskal hiriburuekin egiaztatzea tokian tokiko oihartzunak dituzten jardueraildo nagusiak.	3 parte-hartzaile fitxa 1 Akta
<b>FORU ALDUNDIAK</b>	2015/03/17	Elkarrizketak, euskarri-dokumentazioa alde zurretik bidalita	Beren eskuduntzetan oihartzunak dituzten jardueraildo nagusiak egiaztatzea.	2 parte-hartzaile Akta
<b>INDUSTRIA SAILBURUORDETZA</b>	2015/02/10, 2015/03/02 eta 2015/03/23	Elkarrizketak, euskarri-dokumentazioa alde zurretik bidalita	2050erako energia-eta industria-arloaren ikuspegia egiaztatzea, baita lehentasunezko jardueraildoak ere.	3 parte-hartzaile 2 fitxa Adostutako 2050erako BEG energetikoaren emisioen proiektzioak Akta
<b>GARRAIO SAILBURUORDETZA</b>	2015/02/09	Elkarrizketak, euskarri-dokumentazioa alde zurretik bidalita	2050erako garraio-arloaren ikuspegia egiaztatzea, baita lehentasunezko jardueraildoak ere.	2 parte-hartzaile 2 fitxa Akta



ERAGILEA	DATAK	METODOA	HELBURUA	EMAITZAK
<b>ETXEBIZITZA SAILBURUORDETZA</b>	2015/02/12	Elkarrizketak, euskarri- dokumentazioa aldez aurretik bidalita	2050erako etxebizitza-arloaren ikuspegia egiaztatzea, baita lehentasunezko jarduera-ildoak ere.	3 parte-hartzaile 2 fitxa Akta
<b>SEGURTASUN SAILBURUORDETZA</b>	2015/02/27	Elkarrizketak, euskarri- dokumentazioa aldez aurretik bidalita	2050erako segurtasun-arloaren ikuspegia egiaztatzea, baita lehentasunezko jarduera-ildoak ere.	2 parte-hartzaile fitxa 1 5 iruzkin Akta
<b>ADMINISTRAZIO ETA LURRALDE PLANGINTZAREN SAILBURUORDETZA</b>	2015/02/27 eta 2015/03/27	Elkarrizketak, euskarri- dokumentazioa aldez aurretik bidalita	2050erako lurralde- plangintzaren arloaren ikuspegia egiaztatzea, baita lehentasunezko jarduera-ildoak ere.	3 parte-hartzaile 3 fitxa Akta
<b>INGURUMENEO SAILBURUORDETZA</b>	2015/02/09, 2015/02/19 eta 2015/03/03	Elkarrizketak, euskarri- dokumentazioa aldez aurretik bidalita	2050erako ingurumen-arloaren ikuspegia egiaztatzea, baita lehentasunezko jarduera-ildoak ere.	4 parte-hartzaile fitxa 1 Akta
<b>OSASUN SAILBURUORDETZA</b>	2015/02/16 eta 2015/02/18	Elkarrizketak, euskarri- dokumentazioa aldez aurretik bidalita	2050erako osasun- arloaren ikuspegia egiaztatzea, baita lehentasunezko jarduera-ildoak ere.	12 parte-hartzaile 8 fitxa Akta
<b>NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA POLITIKAKO SAILBURUORDETZA</b>	2015/02/27	Elkarrizketak, euskarri- dokumentazioa aldez aurretik bidalita	2050erako nekazaritzaren, arrantzaren eta elikadura-politikaren arloaren ikuspegia egiaztatzea, baita lehentasunezko jarduera-ildoak ere.	2 parte-hartzaile 3 fitxa Akta
<b>UDALSAREA FOROA</b>	2015/03/24	Lantaldeak, euskarri- dokumentazioa aldez aurretik bidalita	2050erako udalerrri- arloaren ikuspegia egiaztatzea, baita lehentasunezko jarduera-ildoak ere.	10 parte-hartzaile 45 iruzkin Akta
<b>GIZARTE FOROA</b>	2015/03/25	Lantaldeak, euskarri- dokumentazioa	2050erako sektoreko ikuspegia egiaztatzea, baita	21 parte-hartzaile Akta



ERAGILEA	DATAK	METODOA	HELBURUA	EMAITZAK
		aldez aurretik bidalita	lehentasunezko jarduera-ildoak ere.	
<b>IREKIA EKARPENAK</b>	2015eko urtarriletik 2015eko martxora	Oinarrizko informazioa jendearen eskura eta dinamizazioa hainbat gairen bidez.	Jendearen hautemate nagusiak ezagutzea klima-aldaketari eta gaiarekin lotutako jardueren premiei buruz.	15 parte-hartze 30 iruzkin



### 3. ONDORIO NAGUSIAK

2050 KAEE gauzatzeko kontsulta- eta partaidetza-prozesuaren esparruan, kontsultatutako eragileek epe motzean lehentasunezko ekintza gisa identifikatu zuten gaiak eragin diezaieken sektore askotan ezagutza hobetzea; horrela, gero, erabaki zentzuzkoagoak hartu ahal izango dira, ezagutza-oinarri solido batekin. Klima-aldaketara moldatzearen arloarekin lotuta dago hori batik bat, nahiz eta teknologia berrietan ezagutza handiagoa izateko premia ere identifikatzen den BEG emisioak murrizteko.

Saioetatik, halaber, beste hainbat alderdi ondorioztatzen dira, esaterako: erakundeen arteko konexioak duen garrantzia, hirigintza-plangintza publikoan klima-aldaketarako moldaera txertatzea, hondakinen kudeaketa optimizatzea edo muturreko klima-egoeretan ezagutza hobetzea eta urrakortasun-ikerketak klima-aldaketarako moldaerarako ekintzak bultzatzeko funtsezko neurri gisa.

Bereziki, **lehenengo sektorean** garrantzitsutzat jotzen da ezagutzea nola eragingo duten klima-aldaketek uztetan, baso-masan, abeltzaintzan eta arrantzan, eta jakitea zein izango diren sektore bakoitzean txertatu beharreko praktika berriak ere (ereiteko aldi berriak, klima-baldintza berriekiko erresistentzia handiagoa duten barietateak...).

Bestalde, **industria-sektoreak** 2050erako Klima Aldaketaren Euskadiko Estrategia egiteko premia aukera gisa planteatzen du; izan ere, uste da euskal industria-sektoreak gaitasun handiago duela berotegi-efektuko gasen emisioa murrizteko. Halaber, arlo horretan adostu da energia berriztagarrien kuotaren ehunekoa berrikustea, sektorearen ezaugarrietara egokitzeko xedearekin. Gainera, arestian aipatu bezala, garapen teknologikoa eta berrikuntza hartzen dira funtsezko arlotzat hurrengo urteetan xedeak lortzeko arlo horretan.

**Zerbitzuen sektoreari** dagokionez, zehazten da emisioak murrizteko jardueraildo nagusiak bideratuta daudela **garraioaren** dibertsifikaziora (alternatibak, hala nola ibilgailu elektrikoa, hibridoak, gas naturala...), energia aurreztera eta **eraginkortasun energetikora** energia eskatzen duten sektoreetan eta **energia berriztagarriak** pixkanaka txertatzera. Gainera, nabarmendu da sektore horietan ahalegin handiagoa egiteak energia aurrezpenarekin eta eraginkortasun energetikorekin lotuta joan behar duela; horretarako, dekretu bat eta lege bat prestatzen ari da eraginkortasun energetikoari buruz administrazio publikoen eraikinetan. Ildo horretan, eragileek adierazi dute biomasa, energia



fotovoltaikoa eta undimotrizaren hartzera direla etorkizuneko energia berriztagarrien iturri nagusi gisa.

Zehazki, osasunaren arloan, aldiz, zehaztu egin behar da nola eragin dezakeen airearen kalitateak arnasketako gaixotasunak, bihotz-biriketako gaixotasunak eta minbiziak agertzean, edo nola eragin dezaketen tenperatura-aldaketek kontsumorako uraren kalitateari eragin diezaioketen bektoreek edo ziklo hidrologikoen aldaketek transmititutako gaixotasunen banaketan eta eraginean (kantitatean eta kalitatean tenperatura areagotzeagatik) beraiekin ekar dezaketenak elikagaien edo uraren bidez transmititutako gaixotasunak areagotzea.

2050 KAEEren lehen zirriborroa egiteko maneiatu diren denborak zorrotzak izan arren, uste da arrakasta izan dela 2015eko urtarriletik martxora lortutako partaidetzaren mailan, eta parte hartu duten eragile guztien ahalegina eta ekarpenen kalitatea azpimarratu da. Horrek aukera eman du Estrategiari buruzko lehen dokumentu sendo eta zeharkakoa egiteko euskal gizartearen esparru guztietan. Partaidetza-prozesua irekita egongo da oraindik Irekiaren eta Ingurumenaren kanaletan, onartzen den unera arte.